

EAEko IRAKASLEAK

ZERBITZU EGINKIZUNAK

Osasun arrazoiengatik zerbitzu eginkizunak ukatu eta lanpostuen egokitzapena zegokiela adierazi zitzaizen langileei, dagokien jakinarazpena komunikatzeko Administrazioa modu ezberdinak erabiltzen dabil (gutun zertifikatuak, e-maila-ak edota telefonoz).

STEILASentzat onartezina da Hezkuntza Saila langileekiko adierazten ari den ganoragabekeria. Jakinarazpen horiek, gutxienez, gutun zertifikatu bidez egitea ezinbestekoa deritzogu.

TKNIKA behin betiko esleipena argitaratu da. [Ebazpena](#).

2021 GIZA FUNTSA

Eskaeren zerrenda argitaratu da. [Ebazpena](#).

2022-23 IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK (IKHA/COCU)

OHARRA!!! Administrazioari zuzendutako eskaera ezberdinen artean, ekainaren 27ko lanpostuen zerrendaren argitalpena aurreratzea lortu dugu. Hezkuntza Sailak ostiral honetan, **ekainak 24, lanpostuen zerrenda argitaratuko duela jakinarazi digu** (lanpostuak eskatzeko epea, egutegian jasotzen den moduan, ekainaren 27an hasiko da).

Bestetik, lanpostuak eskatzeko erabiliko den plataformaren funtzionamendua azaltzeko bideo-gidak, aste honetan Hezkuntzako web orrian argitaratuko dira.

Horrez gain, 2022-23 ikasturte hasierako esleipenen Agindu berria, Aldizkari ofizialean (EHAA) ekainaren 24ean argitaratuko dela adierazi digute.

STEILASentzat onartezina da gurekin adostu gabeko esleipenak arautzen dituen agindua, prozesua hasi baino pare bat egun lehenago argitaratzea.

IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

IRALE

Irakastordu barneko ikastaroak. Irakasle funtzionario eta finkoak zein irakasle bitarteko eta ez-finkoak. [Onartutakoan eta ez onartuen behin-behineko zerrendak](#) (U eta R ikastaroen 1.txanda). **Erreklamazioak ekainaren 20tik 23ra, bi egun horiek barne.**

ORDEZKAPENAK AZKEN EGUNERA ARTE BETE!!!

www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus